



ZINEMA  
KARTELAK  
BILBON



CARTELES  
DE CINE  
EN BILBAO





*Lo que el viento se llevó*  
MCP 1939

Ignacio Mitxelena Usatorrek eta Bernardo I. García de la Torre komisiarietutako **Zinema kartelak Bilbon** erakusketak lehen aldiz biltzen eta aurkezten du 1935-2000 aldian Bilbon ikusitako Espainiako hamabi zinema-afixen diseinatzailek garrantzitsuenen lana.

Renau, Raga, Peris Aragón, Soligó, MCP, Jano, Mac, Cruz Novillo, Iván Zulueta, Prieto, Mariné eta Juan Gattik egindako kartelak zinema-nobedadeen berri eman zuten Bilboko zinema-aretoetako karteldegietatik. Haien lanak batera ikusteak aukera ematen du orain diseinuen bilakaera estilistikoa hautemateko. Lan grafiko naturalistaren erabilerarekin hasi, eta sinbolismoa, espresionismoa, pop artea, surrealismoa edo postmodernismoa pixkanaka sartzeraino.

Nestor Basterretxea artistaren *Ama Lur / Tierra Madre* filmerako lan grafiko eta 1968an estreinatu zenetik ikusgai egon ez diren publizitate-argazkiak ere jaso dira erakusketan.

Zinema-afixa baten identitatea egilearen adierazpen plastikoaren ondorioa da. Pintore, ilustratzaile, argazkilaria, umorista grafiko edo karikaturagile baten lanaren bidez taxutu daiteke diseinu bat; dibertsitate grafiko oso horrek profil jakin bat ematen dio kartelari.

Artistaren eskuetan estiloa eta teknika modu egokian bateratuz gero, sortzen den kartel zinematografikoak gaitasuna izango du deitzeko, informatzeko, limurtzeko... irudikatzen duen filmaren espirituari sekula traizio egin gabe.

Aipatutako aldian inprimatzeko erabili diren teknikak aurkezten ditu erakusketak, hala nola estanpazio litografikoa, offset fotomekanikoa eta inprimatzeko sistema digitalak.

*Ikusgai dauden elementuak Ignacio Mitxelena Usatorreren bildumakoak dira.*



Amor de madre  
Renau. 1935

La exposición **Carteles de cine en Bilbao**, comisariada por Ignacio Mitxelena Usatorre y Bernardo I. García de la Torre, presenta, por primera vez reunida, la obra de los doce diseñadores españoles de afiches cinematográficos más relevantes en el periodo 1935-2000, que fueron vistos en Bilbao.

Los carteles trazados por Renau, Raga, Peris Aragón, Soligó, MCP, Jano, Mac, Cruz Novillo, Iván Zulueta, Prieto, Mariné y Juan Gatti transmitieron desde las carteleras de los cines bilbaínos las novedades cinematográficas, y el visionado conjunto de sus obras permite descubrir ahora la evolución estilística de sus diseños. Desde la utilización de una gráfica naturalista, hasta la progresiva introducción del simbolismo, el expresionismo, el pop art, el surrealismo o el posmodernismo.

La muestra incluye también la gráfica del artista Néstor Basterretxea para su film *Ama Lur / Tierra Madre*, junto a fotografías publicitarias sin exponer desde su estreno en 1968.


La identidad de un afiche cinematográfico se deriva de la expresión plástica de su autor. Un diseño puede configurarse mediante la obra de un pintor, un ilustrador, un fotógrafo, un humorista gráfico, un caricaturista, toda una diversidad gráfica que imprime al cartel un perfil determinado.

De la adecuada confluencia estilística y técnica en las manos del artista, surge ese cartel cinematográfico capaz de convocar, informar, seducir... sin traicionar nunca el espíritu de la película que representa.

La exposición muestra las diversas técnicas de impresión durante el citado periodo, como la estampación litográfica, la fotomecánica offset o los sistemas digitales de impresión.

*Los elementos expuestos provienen de la colección de Ignacio Mitxelena Usatorre.*

Entre tinieblas  
Iván Zulueta. 1983



sala **ondare aretoa** María Díaz de Haro, 11 48013 Bilbao + 34 94 406 77 37



 **Bizkaia**  
ondare aretoa